



**HAZILAN+ programak ez du soilik zure gaitasunetan arreta jartzen, enpresen benetako beharrekin konektatzen ere laguntzen dizu, enpresak bilatzen ari diren hautagaia bihur zaitez.**

## JARRI HARREMANETAN HAZILAN+ PROGRAMAREKIN

**HAZILAN+** laneratzeko eta enplegarritasuna hobetzeko laguntza-programa bat da, kualifikazio-maila ertain-altua izan arren langabezian dauden eta lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzendua. Informazio gehiago behar baduzu, zure Garapen Agentzian edo [www.hazilanplus.garapen.net](http://www.hazilanplus.garapen.net) webgunean jaso dezakezu informazioa.



## Indartu zure gaitasunak

Ikasketak amaitu berri dituzu, baina ez duzu esperientzia nahikorik langile bila dabilen enpresa baten arreta erakartzeko? Langabezian zaude eta zure ezagutzak eguneratu behar dituzula uste duzu lan-merkatu itzultzeko? Denboraldi bat zaintza-lanetan egon zara eta orain ez dakizu nola bueltatu lan-mundura?

Unibertsitateko edo erdi- edo goi-mailako titulazioa baduzu, **HAZILAN+** programak zure trebetasunak hobetzen lagunduko dizu bilatzen ari zaren lana aurkitzeko.

## Bilakatu enpresek bilatzen duten hautagaian

Lan-merkatua etengabe aldatzen ari da eta ikasgelan eskuratzen ez diren hainbat gaitasun eskatzen ditu: esperientzia, moldakortasuna... Horren aurrean, **HAZILAN+** programak trebetasunak garatzen laguntzen dizu tailer praktikoan eta enpresetako esperientzien bidez. Horrela, komunikatzeko, taldean lan egiteko edo arazoak konpontzeko gaitasunak hobetuko dituzu, lan-merkatuan lehiakorra izateko funtsezkoak direnak.

## Bi ibilbide, bat zuretzat

HAZILAN+ zure beharretara egokitzen diren bi ibilbide ditu:

### OSATU Trebatu...

Aktibatutako taldeko tailerrekin, lan-merkatuan eskatzen diren gaitasun profesionalak eta pertsonalak eskuratuko dituzu. Ibilbide hori osatzeko, enpresetan praktikak egin ditzakezu, zure lanbide-profilaren arabera esperientzia erreala lortzeko.

### LORPEN ...eta hasi lanean

Lorpen ibilbideak lana zuzenean aurkitzen lagunduko dizu baldintza hauetakoren bat betetzen baduzu:

- OSATUren talde-ekintzetara joateko behar besteko prestasunik ez izatea.
- Enplegu bat berehala eskuratzeko beharrezko trebetasunak egiaztatzea.
- Euskaditik kanpo bizitzen egotea eta etxera itzuli nahi izatea.

**HAZILAN+** Garapen Agentzien Euskal Elkartearen eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 15 garapen agentzia eta erakunderen arteko lankidetzara proiektua da: Amurrio Bidean, Beterri-Buruntza Mankomunitatea, Debagoieneko Mankomunitatea, Debegesa, EGAZ Txorierri, Erandioko Udala, Goieki, Iraurgi Berritzen, Lanbide Ekimenak, Laudio Udala, Leioako Udala, Mungialdeko Behargintza, Tolosaldea Garatzen, Uggasa eta Urola Kostako Udala Elkarteak.

